

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROL SAILA

**Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko apirilaren 26an hartutako erabakiaren laburpena; bertan deitzen baitira Udaleko Hezkuntza Zerbitzuak Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako ikasleen Gurasoen Elkarteek (IGE) antolatutako opor-jardueretarako emango dituen laguntzen deialdiaren deialdi publikoa eta oinarri espezifikoak. 2018-2019 ikasturtea**

BDNS (Identif.): 455389

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean kontsulta daiteke.

#### **Lehena. Onuradunak**

Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako ikasleen Gurasoen Elkarteak (IGE) izango dira deialdi honen hartzaileak. Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Derrigorrezko Hezkuntzako mailak eskaintzen dituzten ikastetxeekin lotuta egon behar dute erakunde onuradun horiek.

#### **Bigarrena. Helburua**

Diru-laguntzen deialdi honen helburua da familiek ikastetxeetan duten inplikazioa eta parte-hartzea hobetzea, eta, horretarako, 2018-2019 ikasturtean IGEEK sustatzen dituzten opor-jardueren antolamendua bultzatu du. IGEEen jarduera babestuz, familiek hezkuntza-esparruan, batez ere ikasleen prestakuntza integralean eta, beraz, haien arrakastan duten esku-hartzea indartu nahi da.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaile espezifikoak**

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko apirilaren 26ko erabakiaren bitartez onetsiak; ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdiari 54.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

#### **Bostgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak aurkezteko epea 20 astegunekoa da, deialdi honen oinarrien laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Eskabideak epez kanpo aurkeztea diru-laguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 14an

*Kultura, Hezkuntza eta Kirol Saileko zinegotzi-ordezkaria*  
**ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE**